

Jagoneteko galde-erantzuna

GALDERA

Gure inguruan, Gipuzkoako Beterin behintzat, ilargia handitzen ari den garaiari *ilgora* edota *ilberri* deitzen zaio; eta txikitzen ari denari, *ilbehera*. Eta nik ikusitako hiztegieta ere horrela azaltzen da. Baina aurtengo 2013ko egutegi batek honako hau dio:

- **ilgora**: ez du esan nahi ilargia handitzen ari denik, egunetik egunera zeruan goragoko orbita egiten duela baizik [gaztelaniaz, *luna ascendente*].
- **ilbehera**: ez da ilargia txikitzen ari dela, baizik eta egunetik egunera zeruan egiten duen orbita gero eta beheragokoa dela [gaztelaniaz, *luna descendente*].

Egutegi horren arabera, martxoaren 27an, martxoko euren *ilbehera* omen delakoaren erdi-erdian... *ilargi betea* izango dugu!

Nahaste-borraste horrek eragin dizkidan zalantzak argitze aldera, hona nire galderak:

1. Zuzena al da egutegi horrek dioena, *ilgora* eta *ilbehera* hitzen esanahiari dagokionez?
2. Ilargiaren zein aldi egokituko da 2013ko martxoaren 23an?
3. Euskaraz nola adierazi behar dira gaztelaniazko *luna creciente*, *luna menguante*, *luna ascendente* eta *luna descendente*?

ERANTZUNA

Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak kontsultatzean (ikus 402.-403. or.), hauxe aurki daiteke (besteak beste):

- **ilgora**: Ilargiaren goraldia, ilargi berritik ilargi betera doan 14 eguneko aldia.
- **ilbehera**: Ilargiaren beheraldia, ilargi betetik ilargi berrira doan 14 eguneko aldia.
- **ilargi bete**: Aurpegia erabat argiturik agertzen duen ilargia.
- **ilargi berri**: Lurraren eta Eguzkiaren artean dagoelako ikusezina gertatzen den ilargia; hurrengo egunetako ilargia, ilargi betea arte.
- **ilberri**: Ilargi berria.

Beraz, *ilbehera* <<ilargi betetik ilargi berrira doan 14 eguneko aldia>> da. Bistan da, hortaz, ilargiaren aldi horiek haren itxura (gure planetatik ikusten den bezala)

adierazten dutela, eta ez orbita. Jakizu, gainera, *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* dioen horrekin bat datozela euskalki guztiak mendez mende. Beraz:

1. Ez da zuzena egutegi horrek dioena, *ilgora* eta *ilbehera* hitzen esanahiari dagokionez.
2. Astronomoen kalkulu okerrik izan ezean, 2013ko martxoaren 27an *ilargi betea* izango dugu eta, beraz, martxoaren 23an *ilgora* egongo da ilargia.
3. Gaztelaniazko *luna creciente* **ilgora** da euskaraz; eta *luna menguante*, berriz, **ilbehera**.
4. Gaztelaniazko *luna ascendente*, *luna descendente* bereizkuntza dela eta, euskalkietan eta euskarazko tradizio idatzian ez da ageri horren lekuko euskal ordainik (eta uste dut gaztelaniaz ere aski berria dela). Horregatik, Euskaltzaindiak ez du arautu oraindik bereizkuntza hori.

Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna
2013-01-15